



Kuadrillen jolasak jaietako egun guztietara zabaldutuzte Loiolan

Loiolako jaietako datak pixka bat atzeratzea erabaki dute aurten, eta Itzearen ehorzketa hilaren 31n egin beharrean, abuztuaren 3an egingo dute. Gainera, kuadrillek protagonismo berezia hartuko dute, egunero izango baitute jolasen bat, puntuak lortzeko.

✍ Sara Ibarguren Etxeberria

📷 Loiolako jai batzordea

Asteazken arratsaldean emango diete hasiera Loiolako jaiari, eta hortik aurrera, festak ez du etenik izango auzoan, igandera bitarte. Aurten, jai batzordeko zuzendaritza taldea aldatu dute, eta Jon Revilla eta Itsaso Izagirre dira hemendik aurrera batzordeko presidentea eta idazkaria, hurrenez hurren. Bada, Izagirrek azaldu du jaiak antolatzeke duen erantzukizuna «gogoz» hartu duela. «Aldi berean, esango nuke jai batzordean oso

talde polita dugula, baina ez da oso handia. Orduan, jaiak prestatzeko bai, baina festa egunetan egitarauko jarduerak aurrera eramateko nahiko justu gabilta», onartu du Izagirrek.

Nahiz eta antolakuntzan pertsona gutxi aritu, aurten ere lortu dute egitarau oparoa ontzea, eta badira berritasunak ere. Iaz, lehen aldiz, *kuadrillolinpiadak* egin zituzten, ohartu zirelako «kuadrillek ez zutela toki propiorik festetan». Hori dela eta, Kuadrillen Eguna antolatzea erabaki

zuten, eta *kuadrillolinpiadak* jolasak «arrakasta» izan zuten, aurten modu berezi batean emango diote jarraipena horri: «Jolas horiez gain, olinpiada handiak muntatu ditugu; hau da, jolas desberdinak egingo ditugu jaietako egun guztietan, eta kuadrilla bakoitzaren puntuazioarekin ranking bat egingo dugu. Azken egunean, kuadrilla irabazleari saria

Mikeltxi DJ-a, Tinez, Itzal Erromeria, La Fulana DJ-a eta Mirariren kontzertuak izango dira, besteak beste, aurtengo jaietan

emango diogu. Horrela, jarraipen bat izango dute jaiak, eta kuadrillek ez dute egun bakarra izango».

Urtero, jaietako jarduerarik bereziena festari amaiera ematen dion Itzearen ehorzketa izaten dela onartu du Izagirrek, «egun horietan guztietan pasatzen duguna ixteko momentu berezia izaten delako». Normalean, uztailaren 31ko gauean egin ohi dute; baina oraingoan, datak aldatu dituzte jaietan, eta abuztuaren 3an egingo dute auzoko ikur preziatuaren ehorzketa.

Horren aurretik, ordea, askotariko eginkizunez goatzeko beta izango dute auzotarrek, eta horien artean, hainbat kontzertu nabarmendu ditu jai batzordeko idazkariak: «Asteazkenean, urteroko moduan, Mikeltxi DJ-a izango dugu; ostegunean, Lean and Wavs, Tinez eta Gordas Pinponeras izango dira; ostiralean, Itzal Erromeria eta La Fulana DJ-a etorriko dira, eta larunbatean, Sobre mi gata, Mirari eta Amaia Normal DJ-a arituko dira jaiak girotzen».

Izen emateak zabalik

Abuztuaren 2an kuadrillen bazkarira joan nahi dutenentzat sarrerak aurrez erosi behar dira, eta kuadrillen jolasetarako ere izena eman beharko dute lagun taldeek. Hori egiteko, [@loiolakojaiak](#) Instagram kontuan dituzue esteka guztiak. ●



ASTEARTEA 29

18:00

Pontx pailazoaren Denak plazara ikuskizuna, Latsarien plazan.

ASTEAZKENA 30

18:00

Txupinazoa, Latsarien plazan.
Globota, Latsarien plazan.
Buruhandiak eta erraldoiak Orkresta elektrotxarangak lagunduta, plazatik abiatuta.

19:00

Danborrada auzoan zehar, Loiolatarra elkartetik abiatuta.

22:00

Mikeltxi DJ-a, plazan.

00:00

Bandera igoera, San Ignazio egunari hasiera emateko.

00:10

Zezensuzkoa plazan.

OSTEGUNA 31

08:00

Barrene herrikoia, frontoian.

09:00

Diana albokariekin, auzoan zehar.

12:00

Piragua herrikoia, ibaiertzeko pasean.

12:30

Koro ibiltaria, auzoan zehar.

16:30

Ginkana nazkagarria, plazan (+8 urte).

18:00

Sagardo eguna, Eliza kalean.

19:00

Berto saioa, plazan: Alaia Martin, Aitor Mendiluze, Aitor Sarriegi eta Oihana Iguaran.

20:30

Kontzertua, Aldazabal tabernan:
Black Smoke.
Kontzertua Gibelurdin tabernan:
Serenata Mejicana.

22:00

Kontzertuak, Latsarien plazan:
Lean and wavs, Tinez eta Gordas
Pinponeras.

00:00

Banderaren jaitsiera San Ignazio egunari amaiera emateko.

OSTIRALA 1

09:00

Txistularien diana,
auzoan zehar.

10:30

Puzgarriak, Latsarien plazan.

11:30

San Fermin txiki tailerra, Gibelurdin tabernako plazatxoan.

12:00

San Fermin txiki entzierroa, Igandea txarangarekin.

12:15

Igandea txaranga auzoan zehar,
Latsarien plazatik.

**14:00**

Familien bazkaria plazan, etxetik ekarritakoarekin.

16:30

Moto eta trizikloen lasterketa mundiala, plazan.

18:00

Futbolin txapelketa, plazan.
Tardiada bailable Tropical Son taldearekin, Satorran.
Ivan Azkarate pianistaren kontzertua, Maritxu tabernan.

18:30

Buruhandiak eta erraldoiak Igandea txarangarekin.

20:00

Kontzertua, Aldazabalen: Bellcross.
Kontzertua, Sardexkan: Radio Rebelde.

22:00

Kontzertuak, Latsarien plazan:
Itzal Erromeria eta La Fulana DJ-a.

LARUNBATA 2

09:00

Txistularien diana, auzoan zehar.

10:30

Pala txapelketa, finalak frontoian.

11:00

Estropada ofizialak, ibaiertzeko paseoa.

Irutxuloko Hitza

14:00

Kuadrillen bazkaria, plazan.

16:00

Mus txapelketako izen ematea, plazan.

16:30

Mus txapelketa plazan.
Kuadrilla jolasak plazan.

18:00

96.7 irratiak antolatutako karaoke txapelketa, Gibelurdin tarbenan.
Goitibera herrikoiak, Ariztigañan.

19:30

Dinbi Banda batukada auzoko kaleetan barrena, Jauregiberritik abiatuta.

20:00

Kontzertua, Aldazabalen:
Aceituna con huesos.

22:00

Kontzertuak, Latsarien plazan: Sobre mi gata, Mirari eta Amaia Normal DJ-a.

IGANDEA3

09:00

Txistularien diana, auzoan zehar.

10:30

Bigarren eskuko azoka
Latsarien plazan.

11:00

Zapotxin pailazoaren 'Mundu bat maletan' ikuskizuna plazan.
Ardo eguna Eliza kalean.

12:00

Kukaña ibaiertzeko paseoa.
Sardina jana Satorra tabernan.

12:30

Auzoko kantujira auzoan zehar.

18:30

'Loiola Got Talent!' plazan.

19:00

J.A. Yarza Toka txapelketa Plazaburur, Aldazabalek antolatuta.

20:00

Bingo musikatua plazan.

20:30

Kontzertua Aldazabalen: Anonimos.

21:00

Kuadrillolinpiadetako sari banaketa plazan.

22:30

Txokolatada Latsarien plazan.

23:00

Ilitzearen ehorzketa, Ilargi txarangarekin.

00:00

Amaierako traka ibaiertzeko paseoa.